



*Castildetierra  
Errege-Bardeen Parke Naturala  
Iturria: Nafarroako Turismoa  
Egilea: Francis Vaquero*

# H DBH2

## 2022/2023

# Zuzenketa-koaderno

Izen-deiturak:

Ikastetxea:


Taldea:

Herria:

Data:

# Euskal Hizkuntza Gaitasuna

DBHko 2. maila



# Jarraibideak

Proba bat egingo duzu, bi zati dituen.

## 1. zatia - Irakurmena

Atal honetan hiru testu irakurriko dituzu:

- *Azeriaren eta karramarroaren arteko lasterketa.*
- *Urtebete Marten.*
- *Aireportura taxiz.*

Irakurri duzunari buruzko galderei erantzun beharko diezu. **Hainbat motatako** galderak aurkituko dituzu:

- Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan **zuzena** dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

**Zenbat biztanle ditu Iruñeak?**

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu X batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

**Zenbat biztanle ditu Iruñeak?**

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- ☒ D. Zenbait milioi.

- Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute (E) egia edo (G) gezurra erantzutea, ideaiak erlazionatzea edo erantzuna idaztea puntuak dituen gunean:

**Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?.....**

## 2. zatia – Idazmena

Zati honetan azkeneko irakurgaiarekin nolabaiteko erlazioa izango duen testua idatzi beharko duzu. Irakurri arretaz jarraibideak. Zirriborrea egitea derrigorrezkoa da.



**Proba hau egiteko 70 minutu dituzu.**

# Azeriaren eta karramarroaren arteko lasterketa

## Txinako ipuina

Azeria oso harro zegoen hain korrikalari azkarra izateaz. Ziur zegoen bera zela munduko lau hankako animaliarik azkarrena, eta hain zegoen bere buruaz harro, mespretxuz begiratzen baitzien bera baino motelagoak ziren guztiei. Egun batean, karramarro bat ikusi zuen ibai ertzean tirripiti-tarrapata, eta esan zion:

— Herrestan ibiltzeko baino ez duzu balio! Ez zara inoiz lasterka joaten inora, ala?

— Horixe baietz —erantzun zuen karramarroak—. Lasterka joaten naiz lokatzetik ibaiertzeraino, eta ibaiertzetik lokatzeraino.

— Bo...! —esan zuen azeriak—. A zer gauza. Nik, zuk bezala, zortzi hanka banitu, azkarrago ibiliko nintzateke oraindik, eta batere motela ez naiz... Baina zuk zertarako nahi ote dituzu hainbeste hanka, dortoka bera baino motelago ibiltzeko gero? Ergel samarra ez ote zaren nago.

Karramarroak, une batez hausnartzen egon ondoren, honela esan zion:

— Egingo al dugu lasterketa bat, azeri? Hain motela naizenez, eta hain ergela, aise irabaziko didazu.

Azeria hain zen harroputza eta gaizki hezia, ez baitzuen bere dohainak jendaurrean erakusteko aukera hura galdu nahi izan, nahiz eta lasterketa erabat bidegabea eta desorekatua izan. Eta karramarroak botatako erronka onartu zuen.

— Baina, azeri -ohartarazi zion karramarroak—, zuk abantailarekin jokatzeko duzu. Lasterka hasten zarenean, goraka altxatzen duzu zure isats luze eta iletsu hori, eta haizeak indarrez bultzatzen dio isatsari. Horregatik zara hain azkarra. Isatsean pisu bat jartzea onartuko bazenu, isatsa lurretik ez altxatzeko moduan, baldintza beretan egingo genuke korrika biok.

— Baldintza beretan! -barre egin zuen azeriak—. Hori esatea ere! Baina nire isatsak hainbeste kezkatzen bazaitu, lotu ezazu, lotu lasai.

— Aski izango da zerbait zintzilik jartzea —esan zuen karramarroak—. Gero, nik “Bat, bi eta hiru!” esaten dudanean, hasi korrika.

— Nahi duzun bezala -erantzun zuen azeriak.

Handik gutxira, pisu arin bat sumatu zuen azeriak isatsean, eta karramarroak esan zuen: “Bat, bi eta hiru!”. Azeria ziztu bizian irten zen korrika, baina karramarroak isatsari heldu zion bere haginekin! Hala, oso azkar joanagatik ere, azeriak karramarroa atzean zuen beti, eta ahaleginik txikiena egin gabe, gainera.

Azeriak leher egin zuenean, arnasestuka gelditu, eta buelta-erdia eman zuen, karramarroa urrutian agertzen ote zen ikustearren. Baina a zer ezustekoa hartu zuen, hura hantxe ondoan ikusi zuenean, alai-alai agur egiten ziola!

— Zer duzu, azeri? -galdetu zion karramarroak—. Dagoeneko nekatuta? Baina hasi besterik ez gara egin-eta.

Azeria seko ergelduta sentitu zen, eta isatsa hanka artean sartuta alde egin zuen handik, karramarroa adarra jotzen aritu zitzaioa susmatu ere egin gabe. Handik aurrera, azeriak beti bezain lotsagabe jokatzeko jarraitu zuen, baina ez zen inoiz gehiago jendaurrean agertu munduko animaliarik azkarrena bezala.

Mary Hoffman; *Isatsetik tiraka: mundu osoko animaliei buruzko ipuinak*. Vicens Vives, 2013.

## 1. Zein EZ da “tirripiti-tarrapata” hitzaren sinonimoa?

- A. Tirrist-tarrast.
- B. Arrastaka.
- C. Herrestan.
- D. **Laugainka.**

1. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

## 2. Zein da “ergela” hitzaren antonimoa?

- A. **Azkarra.**
- B. Motela.
- C. Inozoa.
- D. Arina.

2. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**3. Karramarroaren ustez, zergatik jokutzen du abantailarekin azeriak?**

- A. Isats luze eta iletsuarengatik.
- B. Isats eta haizearengatik.
- C. Isatsaren pisuarengatik.
- D. Isatsa goraka altxatzeagatik

3. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**4. Azeriak, gelditzean, zer uste zuen?**

- A. Leher egin behar zuela.
- B. Karramarroa urruti egonen zela.
- C. Karramarroa arnasestuka ibiliko zela.
- D. Berak irabaziko zuela.

4. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

**5. “Seko ergelduta”, nola esanen zenuke beste modu batez?**

- A. Guztiz tentelduta.
- B. Guztiz harrituta.
- C. Guztiz asetuta.
- D. Guztiz amorratuta.

5. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

6. Zergatik sentitu zen azeria ergelduta? Bi arrazoi eman itzazu.

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	Aukera hautatik bat, edo antzekoa.
2	Aukera hauetatik bi, edo antzekoak. - <b>Lasterketa irabazi ez zuelako.</b> - <b>Karramarroa hain urrun berekin batera ikustea espero ez zuelako.</b> - <b>Azeriak uste zuen bezain azkarra ez zelako.</b> - <b>Barregarri geratu zelako.</b> - ...

6. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

7. Ipuinean nor da argiena?

- A. **Karramarroa.**
- B. Azeria.
- C. Dortoka.
- D. Bakar bat ere ez.

7. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**8. Zer adierazi nahi du “isatsa hanka tartean sartuta alde egin zuen” esaldiak?**

- A. Gizon-emakumeen ibilera mota bat.
- B. **Umil-umil joatea.**
- C. Etxetik ospa egitea.
- D. Azterketa batean kale egitea.

8. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, narrazioa, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

## Urtebete Marten

**NASAREN 'Perseverance' rover ibilgailuak urtea bete du Marten. EHU misioan parte hartzen ari da: Marteko harriak, geruzak eta hautsa ikertzen ditu, haren osagai kimikoak zein diren jakiteko. Harri bolkanikoak aurkitu dituzte oraingoz. Marten bizitza arrastoak aurkitzea da misioaren helburu nagusia.**

Ordulari batean 10:00ak dira; bestean, 01:00a. Goiza batean, goizaldea bestean. Ez dago inor Martina Casiano zentro teknologikoaren operazio zentroan, EHUren Leioako campusean (Bizkaia). Ikertzaileak 17:00 aldera hasiko dira lanean. 17:00ak Euskal Herrian, 08:00ak Los Angelesen. AEBetako hiriko ordutegiaren arabera lan egiten du hamar lagun inguruko ikertzaile talde batek Leioan, NASAREN martxaren arabera. Orduan ekingo diote Martera aginduak bidaltzeari, eta Martetik informazioa jasotzeari. NASA AEBetako Espazio Agentziaren Marteko misioan parte hartzen ari dira, planeta gorria ikertzen, *Perseverance* rover ibilgailuaren bitartez.

EHUko ikertzaileak lanean hasten direnean, 17:30 inguru izango dira Marteko Jezero kraterrean, *Perseverance*-k duela urtebete lur hartu zuen eta gaur egun dagoen lekuan. Urtebetean, *Perseverance*-k Marteko argazkiak atera ditu, Marteko soinua grabatu du, *Ingenuity* helikoptero txikiak hemeretzi hegaldi egin ditu, eta, garrantzitsuena, mundu guztiko zientzialariak Marte ikertzen ari dira. Auto baten neurriko laborategi ibiltari eta sofistikatua da *Perseverance*.

Gorka Aranek pantailak piztu ditu, eta Marte agertu da. Zerua laranja, eta lurra gorri. EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ibea taldeko ikertzailea da Arana. Marteko harrien, geruzen eta hautsaren konposizio kimikoa ikertzen ari dira. EHUko beste ikerketa talde bat, Bilboko Ingeniaritza Eskolako Zientzia Planetarioen Taldea, Marteko atmosfera eta eguraldia aztertzen ari da.

*Perseverance* dagoen Jezero kraterrean sumendi bat izan zen aurrena, eta laku bat gero, duela 3.300 milioi urte. Harri bolkanikoak aurkitu dituzte, ez harri sedimentarioak. «Mineral jakin batzuk agertzen dira: piroxenoa, olibinoa... harri bolkanikoetan agertu ohi diren mineralak», zehaztu du Aranek. Nabarmendu du Marteko harriak «oso heterogeneoak» direla, hau da, hainbat materialez osatuak, nahasketak.

Harrietan eraldatze prozesuen aztarnak aurkitu dituzte, izpi infragorriak erabiliz. Izpi infragorriekin mineraletako loturak edo talde kimikoak identifika ditzakete, eta ikusi dute harri horietako batzuetan ura egon zela: «Harri bolkanikoa eraldatu egiten da uraren eraginez, eta uraren konposatuak agertzen dira: filosilikatoak, perkloratoak, karbonatoak...». Halakoak azaldu dira.

Eraldatutako harri gehiago aurkitzea espero zuten. Baita buztinak ere. Baina uste baino gutxiago ikusi dituzte. «Azalpen bat izan daiteke ura pentsatu baino denbora gutxiagoan egon zela kraterrean», Aranaren arabera.

Marten bizitza arrastoak aurkitzea da misioaren helburu nagusia. Noizbait bizidunen bat egon zela erakusten duen arrasto organikoren bat. Marten ura egon zen, eta izotza badago; beste kontu bat da ea bizitza egon ote zen. Nekez aurkituko dute bizitza aztarnarik arroka bolkanikoetan. Aurkitzekotan, «aukera gehiago egongo dira harri sedimentarioetan, karbonoetan». Zuhur mintzo da Arana. «Aurkituz gero, izugarria litzateke».

## Perseverance



**Kamerak**  
23.  
**Mikrofonoak**  
Bi izango ditu. Zer soinu dago Marten? Ez dakite

### Ibilgailu mota

Rover ibilgailua, planetetako edo ilargiko gainazala esploratzeko.

### Iraupena

Gutxienez, urte martetar bat (Lurreko 687 egun).

### Lan nagusia

Ea Marten bizitza izan zen bilatzea eta arroka eta lur laginak biltzea.

## Ingenuity



Helikoptero txiki eta arina da (1,8 kilo ditu). Martera iritsitakoan, askatu egingo da, eta hegaldiak egitea da asmoa. Zailtasuna? Marteko airea oso fina dela, Lurrekoa baino %99 dentsitate gutxiago du. Eta Marten hotz egiten duela, zero azpiko 90 gradu gauetan.

### 1 Indarra

4,8 kilo plutonio izango ditu, eta plutonioaren desintegrazio erradioaktiboaren ondorioz sortutako beroa argindar bihurtuko dute. Argindar horrek litio-ioizko bi bateria kargatuko ditu.

### 2 Gurpilak

Sei gurpil ditu, aluminiozkoak. Gurpil bakoitzak motor propioa du. 40 zentimetroko oztopoen gainetik ibil daiteke.

### 3 Beso robotikoa

2,1 metroko luzera du. Laginak biltzeko erabiliko dute.

### Ibilgailuaren abiadura

Motela da. Leku laueta segundoko 4,2 zentimetroko abiaduran ibil daiteke, hau da, 152 metro ordubetea.

## Ikerketarako tresnak

### 4 Rimfax

Gainazala eta gainazalaren azpiko (hamar metrotik behera) elementu geologikoak aztertzeko radarra. Izotza izango da bilatuko duen gauzetako bat.

### 5 Moxie

Marteko karbono dioxidoa (CO<sub>2</sub>) oxigeno bihurtzen saiatuko da.

### 6 Meda

Eguraldi estazioa.

### 7 Mastcam-Z

Perseverance-ren begiak, kamera panoramikoak. Marteko gainazalaren goi bereizmeneko bideo irudiak eta 3D irudiak grabatuko dituzte.

### 8 SuperCam

Laserra, espektrometroa eta kamera. Arroka eta lurra aztertuko ditu, bai konposizio kimikoa, bai atomikoa eta molekularra.

### 9 Sherloc

Izpi ultramoreen espektrometroa, bi kamera eta laserra. Iraganeko bizitza arrastoak bilatuko ditu.

### 10 Pixl

X izpien espektrometroa. Marteko arroken eta luraren osagai kimikoak identifikatu ditzake. Elementuen gertuko argazkiak aterako ditu, haien testura ikusteko.

<https://www.berria.eus/ikasgela/berriak/xehetasuna/urtebete-marten>

**9. Zer da Marten aurkitu nahi dutena?**

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	<b>“Bizitza arrastoak”.</b>

9. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Irekia

**10. Aurkitu testuan erlojua hitzaren sinonimoa.**

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	<b>“Ordulari”.</b>

10. galderaren analisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

**11. Bilatu testuan definizio horiei dagozkien hitzak:**

- Gauerditik eguerdira arteko denbora bitartea:

.....**GOIZ**.....

- Egunsenti inguruko orduak; gauerditik egunsentira arteko orduak:

.....**GOIZALDE**.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	Erantzun zuzen bat.
2	“GOIZ” eta “GOIZALDE”.

11. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	2
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Irekia

**12. Zer dela eta hasten dira lanean arratsaldeko 17etan EHUKo ikertzaileak?**

- A. NASAk hori agintzen dielako.
- B. Martera argazkiak bidali ahal izateko.
- C. Goizez Marten ilun dagoelako.
- D. AEBetako ordutegia darabiltelako.

12. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**13. Zer da Perseverance?**

- A. NASAren ibilgailu automatikoa.
- B. NASAk duen argazki-makina.
- C. NASAren laborategi ibiltaria.
- D. Auto sofistikatua.

13. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

**14. Zein da “ikertu” aditzaren sinonimoa?**

- A. Aztertu.
- B. Agertu.
- C. Zehaztu.
- D. Identifikatu.

14. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Hausnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**15. Zer eragin du uraren presentzia urria izateak?**

- A. Harri bolkaniko gutxi aurkitzea.
- B. Harri sedimentario gutxi aurkitzea.
- C. Harri heterogeneo gutxi aurkitzea.
- D. Harri eraldatu gutxi aurkitzea.

15. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Zaila
Galdera mota	Itxia

**16. Zer dago Marten?**

- A. Sua.
- B. Ura.
- C. Izotza.
- D. Bizitza.

16. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**17. Zergatik ez da erraza izanen Ingenuityren lana?**

- A. Helikoptero txiki eta arina delako.
- B. Martera iristean askatu egingo delako.
- C. Aire ezberdina eta hotza handia direlako.
- D. Gauetan zero azpiko 90 gradu espero direlako.

17. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**18. Zer nolako informazioa ematen du testuarekin batera doan irudiak?**

- A. Marten argazkiak egiten direla jakinarazten du.
- B. NASAk dituen ibilgailuen azalpena ematen du.
- C. Marten dauden ibilgailuen motak adierazten ditu.
- D. Ikerketarako tresnen azalpena ematen du.

18. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**19. Lotu itzazu tresnak eta eginbeharrak.**

TRESNAK	EGINBEHARRAK
RIMFAX	oxigenoa sortu
MOXIE	bizitza arrastoak bilatu
MEDA	irudiak grabatu
MASTCAM-Z	eguraldia neurtu
SUPERCAM	arrokak eta lurra aztertu
SHERLOC	argazkiak atera
PIXI	izotza bilatu

RIMFAX	izotza bilatu
MOXIE	oxigenoa sortu
MEDA	eguraldia neurtu
MASTCAM-Z	irudiak grabatu
SUPERCAM	arrokak eta lurra aztertu
SHERLOC	bizitza arrastoak bilatu
PIXI	argazkiak atera

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun zuzen bat edo erantzun zuzenik ez.
1	4, 3 edo 2 erantzun zuzen.
2	6 edo 5 erantzun zuzen.
3	Erantzun guztiak zuzenak.

19. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Jarraitua, azalpena, erreportaje .
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	3
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

**Bigarren testuko galderen amaiera**

## AIREPORTURA TAXIZ

2019ko abuztuaren 1etik aurrera, Iruñerriko Mankomunitateak joan-etorriko garraio-zerbitzu publikoa jarriko du abian Sarasate pasealekutik Iruñeko aireporturaino. Taxi bidez emango da, ordutegi finkoa izango du eta erreserba egin beharko da aurretik. Zerbitzu berri honek Eskualdeko Hiri Garraioko Geltokiak-Aireportua A linea izeneko linea erregularra ordeztuko du.

### BIDAIK PREZIO BAKARRA IZANGO DU

**0,70 €** PERTSONAKO/IBILBIDEKO

- > 5 urtetik beherakoak ordaintzetik salbuetsita egongo dira, eta lagunduta bidaiatu beharko dute.
- > Eskudirutan ordaindu beharko da beti.
- > Ez da onartuko 20 eurotik gorako billetek.

### AURRETIAZ ERRESERBATZEA

Deitu egin behar da, aurretik erreserbatzeko:

### JOATEKO BIDAIA

3 ordu eta 10 minutu artean lehenago.

### ITZULTZEKO BIDAIA

30 eta 10 minutu artean lehenago.

**948 232 300 / 948 351 335**

Erabiltzaileari hauek eskatuko zaizkio:

- > Zerbitzua hasteko geroalekua: Sarasate pasealekua edo aireportua.
- > Zerbitzua egingo den ordua.
- > Erabiltzaileen kopurua eta baten batek gupildun aulkian bidaiatuko duen.
- > Ekipajea, kopurua eta tamaina (fardel handia edo txikia).
- > Erreserba egiten ari den pertsonaren izena.

### JOATEKO BIDAIA

#### ABIATZEKO GERALEKU BAKARRA

> Sarasate pasealekua, 1 (taxien geroalekua).

#### ORDUTEGIA

05:30 / 07:30 /  
08:30 / 09:30 /  
10:30 / 11:30 / 12:30 / 13:30 /  
14:30 / 15:30 / 16:30 / 17:30 /  
18:30 / 19:30 / 20:30 / 21:30

#### HELMUGAKO GERALEKUA

> Aireportua (taxien geroalekua).

### ITZULTZEKO BIDAIA

#### ABIATZEKO GERALEKUA

> Aireportua (taxien geroalekua).

#### ORDUTEGIA

10:00 / 11:00 / 12:00 /  
13:00 / 14:00 / 15:00 /  
16:00 / 17:00 / 18:00 /  
19:00 / 20:00 / 21:00 /  
22:00 / 23:00 / 24:00

#### HELMUGAKO GERALEKUAK

- > Zaragozako etorbidea, 61 (Zidacos Errekaren eta Urederra Errekaren kaleen artean).
- > Zaragozako etorbidea, 1 (Vianako Printzearen plazaren ondoan).
- > Sarasate pasealekua, 1 (taxien geroalekua).



**AIRE-  
POR-  
TURA  
TAXIZ**

**2019KO  
ABUZTUAREN  
1ETIK  
AURRERA**

**0,70€**

**PERTSONAKO / IBILBIDEKO**

**20. Nork egin du eskuorria?**

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	<b>“Iruñerriko mankomunitateak”.</b>

20. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, informazio-triptikoa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

**21. Zerbitzu berri honen ondorioz, zer gertatuko da *Eskualdeko Hiri Garraioko Geltokiak-Aireportua* linearekin?**

- A. Ordutegi finkoa izanen du.
- B. Jarraituko du.
- C. **Desagertuko da.**
- D. Erregularra izanen da.

21. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, informazio-triptikoa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

**22. Bideak zenbat balio du?**

- A. 0,70 euro pertsonako joan-etorria.
- B. **0,70 euro pertsonako eta ibilbideko.**
- C. 0,70 euro pertsonako edota ibilbideko.
- D. 0,70 euro ibilbideko.

22. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, informazio-triptikoa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

**23. Zerbitzua nola ordaindu daiteke?**

- A. Gauzaz.
- B. Txartelarekin.
- C. **Dirutan.**
- D. Bizumen bidez.

23. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, informazio-triptikoa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

**24. Zenbat geraleku daude aireportutik itzultzeko?**

- A. **Hiru.**
- B. Bat.
- C. Asko.
- D. Bi.

24. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, informazio-triptikoa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

- 25.** Iruñera hegazkinez iritsi eta amak taxi bat nire zain egotea eskatuko du. Zenbat denboraz deitu behar du?
- .....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Beste erantzun batzuk.
1	<b>“30 eta 10 minutu artean lehenago”.</b>

25. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, informazio-triptikoa.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

## Hirugarrenengo testuko galderen amaiera

## 2. zatia - Ekoizpen idatzia

- 26.** Posta elektroniko bat idatzi behar duzu “Aireportura taxiz” zerbitzuaren erabilera eskatzeko. Helbide honetara jo behar duzu: [mcp@mcp.es](mailto:mcp@mcp.es).

### Posta elektronikoan jaso beharrekoa:

- Taxi zerbitzuaren erreserba egin behar duzu **aireportura joateko**.
- Hasierako geldialdia **alda** dezakezun galdetu behar duzu eta aldaketa **zer dela eta behar duzun** azaldu.
- Beharrezkoa den **gainerako informazioa** adierazi behar duzu:
  - Ordua
  - Erabiltzaile-kopurua, eta behar bereziak, izatekotan.
  - Ekipajea, kopurua eta tamaina.

### Ez ahaztu:

- **Erregistro** egokia erabiltzea (hartzailea ez duzu ezagutzen), agurtzea hasieran eta amaieran.
- Posta elektroniko baten **zati guztiak** betetzea.



Egilea: Diario de Navarra-ren Artxiboa



Egilea: Javier Bergasa

Kontuan hartu nola sortu behar duzun testua:

1. Pentsatu hasierako planteamendua.
2. Prestatu zirriborroa.
3. Idatzi behin betiko testua.

**1. Ideiak – Hasierako planteamendua:**

**2. Zirriborroa:**

### 3. Behin betiko testua:

## MEZU BERRIA

Hartzailea:

Gaia:

[illegible]

**BIDALI**

**Aztertzaileek bete beharreko puntuazio-taula**

Atala	Irizpidea	0	0,5	1
<b>PLAN</b>	1. Zirriborroa (espazioa erabiltzen du).			
<b>ZUZENTASUNA</b>	2. Aurkezpena.			
	3. Ortografia (gehienez, 1 puntu; gutxienez, 0 puntu). * Ortografia-falta bakoitzeko 0,2 deskontua.			
	4. Zuzentasun gramatikala.			
<b>EGOKITASUNA eta KOHERENTZIA</b>	5. Baldintza eta ataza guztiak betetzen ditu.			
	6. Hiztegia aberastasuna.			
	7. Egokitasuna: erregistroa, kortesia formulak, atal guztiak.			
	8. Testu zentzuduna eta ondo egituratua.			
<b>KOHESIOA</b>	9. Lotura eta kohesio mekanismoak.			
	10. Puntuazio markak (gehienez, 1 puntu; gutxienez, 0 puntu). *Puntuak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,2 penalizatzen du. Komak edo puntu eta komak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,1 penalizatzen du.			
<b>Itema 26 – Guztira:</b>		<b>/10</b>		

- Komenigarria da Zuzenketa Koadernoak kontsultatzea.

## I. ERANSKINA

Atala	Irizpidea	Adierazleak	Ez 0	Partzialki 0.5	Bai 1
PLANGINTZA	1. Zirriborroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ideiak antolatzeko prozeduraren bat erabiltzen du.</li> <li>Bi zatiak erabiltzen ditu.</li> <li>Behin betiko testuak zirriborroa hobetzen du.</li> </ul>			
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Letra argiz idazten du, okertu gabe eta marjinak utziz.</li> <li>Testua paragrafotan egituratzen du.</li> </ul>			
	3. Ortografia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ortografia-falta bakoitza 0,2 deskontua.</li> </ul>			
	4. Zuzentasun gramatikala	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez du akats morfosintaktikorik egiten</li> <li>Komunztadura eta arau gramatikalak ondo betetzen ditu.</li> <li>Perpausetan aberatsa da.</li> </ul>			
EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA	5. Eskatutako zereginarekin bat dator eta eskakizunak bete ditu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleak eskatutako informazioa ematen du (emailaren helburua, zerbitzua hasteko geroak, ordua, erabiltzaileen kopurua, ekipajea, izena).</li> <li>Galdetzen du ea hasierako geldialdia alda dezakeen eta aldaketa honen kausa justifikatzen du.</li> </ul>			
	6. Hiztegiaren aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erabili duen hiztegia ez da errepikakorra, aberatsa eta egokia da.</li> </ul>			
	7. Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hasierako eta amaierako agurrak formalak dira.</li> <li>Amaieran izena agertzen da.</li> <li>Testua hizkuntza-erregistro egokian idatzita dago, hartzaileari egokitu eta testuingurua kontuan izanda.</li> </ul>			
	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia	<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazioaren garapena modu logikoan egiten du, kontraesanik eta alferrikako errepikapenik gabe.</li> <li>Eskatutako testu motaren egitura errespetatzen du.</li> <li>Ideiak paragrafoka antolatzen ditu.</li> </ul>			
KOHESIOA	9. Lotura, erreferentia mantenduz	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testu antolatzaile eta lokailu egokiak erabiltzen ditu.</li> <li>Erreferentzia mekanismoak zuzen baliatzen ditu.</li> </ul>			
	10.- Puntuazio-markak	<p>Puntuak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,2 penalizatzen du.</p> <p>Komak edo puntu eta komak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,1 penalizatzen du.</p>			
	OSOTARA		/10		

Aurreko ikasturtean bezala, uste izan dugu gida bat baliagarria izan daitekeela zuzenketa errazteko eta iazkoarekin alderatuta egindako aldaketa txikiak zehazteko. Oro har, hiru puntuazio-aukera (0, 0.5 eta 1) mugatzen dituen errubrika-eredu berarekin jarraitzea erabaki da. Horren bidez, lana arindu eta zuzenketa arteko aldeak minimizatu nahi dira. Puntuazio- eta ortografia-ataletarako, berriz, hiru mailak kendu dira, eta, akatsik egonez gero, errubrikan adierazitako penalizazioak aplikatuko dira.

II. eranskinean atal bakoitzaren azalpen bat dago, eta III. eranskinean taula orientagarri bat, maila bakoitzaren deskribapenarekin.

## II. ERANSKINA

### PLANIFIKAZIOA

#### **1. PLANIFIKAZIORAKO TARTEEN ERABILERA:**

Lehenengo tarteak ideiak eta hitz solteak jartzeko da, eta bigarrena, zabalagoa, zirriborro bat idazteko. Egokiena zirriborrea eta behin betikoaren arteko aldaketak egiaztatzea litzateke, baina ikasle batzuk planifikazio prozesuarekin ohituta ez daudenez, malguak eta irekiak izaten ahal gara zati honen balorazioan.

### ZUZENKETA

**2. AURKEZPENA:** oro har txukuntasun itxura izatea baldintza garrantzitsua da edozein idazki eta edozein lan akademiko aurkezteko. DBHko 2. mailako ikasle gehienek bereganatuta dute gaitasun hori; beraz, bereziki baloratuko dugu paragrafoen arteko tarteak uztea, letra argia izatea eta urratu gehiegirik ez egotea, aldez aurretik zirriborro bat egin ahal izan dutelako.

**3. ORTOGRAFIA:** Ortografia-falta bakoitza 0,2 deskontua.

**4. ZUZENKETA GRAMATIKALA:** DBHko 2. mailako ikasleek behar bezala erabili behar dute indikatiboaren aditz-sistema (komunztadura barne) eta ergatibo kasua ongi erabiltzea baloratuko da. Gaztelaniazko kalkoak saihestu behar dira. Perpausen aberastasuna nabarmen baloratuko da: baldintza hipotetikoa, ahalera, menpeko perpausak (kontzesiboak, denborazkoak, helburuzkoak, kausalak, ...)

### EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA:

Komunikazio-lana erraza denez eta ia ezer asmatu behar ez dutenez, garrantzia berezia eman zaio osotasunean egokitzeari: testuinguru horretan egitura egokiak erabiltzeari eta erregistro egoki bati.

**5. ESKATUTAKO ZEREGINAREKIN BAT DATOR ETA ESKAKIZUNAK BETE DITU:** zeregina erraza da, beraz, eskakizunen taulan sartutako puntu guztiak agertu behar dira. Hasierako eta amaierako agurrak behar bezala eman dira, eta posta elektronikoa zergatik idazten duen, eskatutako datu guztiak eman dituen eta ea hasierako geldialdia alda dezakeen galdetzen duen agertzen dira.

**6. HIZTEGIAREN ABERASTASUNA:** hiztegiak askotarikoa izan behar du, eta hori ere konplexua da, ariketa laburra delako, baina zorrotzak izaten ahal gara,

komunikazio lana erraza delako. Era berean, ikasleek sortutako kalko lexikalak ez erabiltzea zaindu beharko dugu, hau da, gaztelaniazko hitzen itzulpenak ez erabiltzea.

7. **EGOKITASUNA:** hasierako eta amaierako agurrek formalak izan beharko lukete, edo, gutxienez, gehiegizko hurkotasunera ez jotzea. Zeregin honen gako nagusietakoa da elkar ezagutzen ez duten bi pertsonaren arteko erregistro egokia erabiltzea; adierazpen formalak erabili beharko lirateke.
8. **EGITURA ARGIA, INFORMAZIOAREN PROGRESIO EGOKIA:** gaiak progresio egokia izan behar du, eta egitura argia sortu. Kasu zehatz honetan, mezu elektronikoaren edukia guztiz zehaztuta dago, eta, beraz, ez da originaltasuna bilatzen, baizik eta gehiegizko jauzirik ez egotea eta dena zentzuzkoa izatea. Ideiak hainbat paragrafotan banatu behar ditu, nahiz eta mezu elektronikoa izan, kontuz ibili behar du informazioa ez errepikatzeko...

## KOHESIOA

9. **LOTURA ETA ERREFERENTEA MANTENTZEA:** Atal honetan lokailuen edo testu-antolatzaileen erabilera baloratuko dugu. Testuaren luzerak eta izaerak ez dute ematen lokailu asko sartzeko, baina testu-antolatzaileraren bat beharrezkoa da, edo marratxoak edo beste marka batzuk erabili behar dira, adibidez. Halaber, begiratu dugu erreferentea mantentzeko orduan ez dagoela arazorik, ez dela justifikaziorik gabeko omisiorik edo gehiegizko errepikapenik egin. Horretarako, DBHko 2. mailako ikasleek gai izan behar dute kohesio baliabide errazak erabiltzeko: elipsia, sinonimoak, izenordainen bat, baita substantibazioen bat ere. Testuaren kohesioa aditzen korrelazio zuzenaren arabera ere izan da. Hiru alderdi horietan akats asko egin badira atal honetan zero puntu ematea ekarriko luke.

10. **PUNTUAZIOA:** irizpide zehatz batzuk eman dira zuzenketa errazteko.

- ❖ Idatzizko Produzketaren zuzenketarako eta ondorengo lanerako, hurrengo testua kontsultatzea gomendatzen da: *komunikazio gaitasuna: testu idatzien ekoizpena. Zuzenketarako orientabideak. Ebaluazio diagnostikoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*. Hezkuntzako Ikuskapen Koadernoak. Nafarroako Gobernua. 2008.  
<https://www.educacion.navarra.es/documents/713364/714655/dbh7.pdf/a303e59a-2a9a-46e6-a481-0a221f4b4dac>

**III. ERANSKINA Deskriptoreen taula, mailen arabera. Orientabide moduan erabiltzeko.**

	<b>0 puntu</b>	<b>0,5 puntu</b>	<b>1 puntu</b>
<b>1. Plangintza</b>	Ez ditu bi zatiak erabili, ez du ezer egin.	Bi zatiak erabili ditu, edo bietako bat bakarrik, baina ez ditu behar bezala garatu.	Bi zatiak erabili ditu, eta nabarmen hobea da behin betiko testua.
<b>2. Aurkezpena</b>	Urratu gehiegi daude, ez dago marjinarik, letra ez da ulertzen, ez dago paragrafoen arteko tarte argirik...	Urratu bat edo beste, letra ez hain argia, marjinak eta paragrafoen tarteak ez dira guztiz egokiak. Oro har hobetu daiteke.	Letra argia da, marjinak utzi ditu, paragrafoak argi bereizi ditu, oro har txukuntasunaren itxura.
<b>3. Ortografia</b>	Ortografiako akats bakoitzak 0.2 penalizatzen du.		
<b>4. Zuzentasun gramatikala</b>	<p>Akats ugari daude, eta hori ez da DBHko 2. mailarekin bateragarria, eta horrek komunikazioa ere eragozten du.</p> <p>Ergatiboa gaizki erabiltzeak zaildu egiten du igorleari edo hartzaileari buruz ari ote den jakitea, indikatiboa ez du menperatzen, etengabe gaizki erabili du eta gaztelaniazko kalko asko daude.</p>	Akats errepikatuak daude, oraindik ez du ongi menderatzen ergatiboaren erabilera, baina mezua ulertu egiten da.	Ez dago akatsik edo, baldin badaude, egitura oso konplexuetan gertatzen dira. Aberastasuna erakusten du zenbait egituretan.
<b>5. Eskatutako zeregina</b>	Ez ditu bete eskatzen diren jarraibideak.	Eskakizunetako batzuk bete ditu, baina ez guztiak.	Eskakizun guztiak bete ditu (emailaren helburua, zerbitzua hasteko geroakua aldatzearen eskaera, ordua, erabiltzaileen kopurua, ekipajea, izena, ...).
<b>6. Lexikoa</b>	Hiztegia pobrea eta errepikakorra da edo hitzak gaztelaniaz idazten ditu.	Hiztegia apur bat erraza eta errepikakorra da.	Askotariko hiztegia erabiltzen du.

<b>7. Egokitasuna</b>	<p>Ez du agurtzen edo ez da behar bezala agurtzen. Ez du helbide elektronikoa bete.</p> <p>Erregistroa informalegia da, igorleak ez du hartzailearekiko distantziarik erakusten.</p>	<p>Alderdi hauetakoren batek huts egiten du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hasierako eta bukaerako agurra.</li> <li>- Helbide elektronikoa sartu du.</li> </ul> <p>Erregistroa ez da guztiz formala.</p>	<p>Helbide elektronikoa sartu du, hasierako eta amaierako agurrak formalak dira, amaieran izena agertzen da.</p> <p>Erregistro egokia: formalismoren bat erabiltzen du.</p>
<b>8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia</b>	<p>Testua ez da koherentea, zentzurik gabeko jauziak daude, kontatutakoaren bilakaerak ez du haririk, eta, beraz, ez dago gaiaren garapen egokia, ezta egitura argia ere.</p>	<p>Egitura argia ikusten da, baina jauzi batzuk daude edukian, edo ez du gaiaren garapen ona lortu; izan ere, imajinatutako istorioaren sarrera bortxatua da, ez dago lotuta, bat-bateko jauzi bat dago, ez dirudi testu bereko zati bat denik,...</p>	<p>Testua koherentea da, asmatu egin du istorioa imajinatzen, eta zentzuz amaitu du. Beraz, gaiaren garapen ona dago eta egitura argia ikusten da. Kontatutako guztiak lotura du eta bilakaera logikoa da.</p>
<b>9. Lotura eta erreferentea mantentzea</b>	<p>Ez da argi geratzen erreferentea, omisioak eta errepikapenak, lokailuen eta kohesio baliabideen erabateko gabezia. Akatsak denboren korrelazioan.</p>	<p>Batzuetan, erreferentea galtzen da. Lokailu oso sinpleak, zenbait errepikapen.</p>	<p>Lokailuak eta kohesio baliabideak (sinonimoak, izenordainak...) erabili ditu; horrela, ideiak ongi lotuta daude eta erreferentea mantentzea lortu du.</p>
<b>10. Puntuazioa</b>	<p>Puntuak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,2 penalizatzen du.</p> <p>Komak edo puntu eta komak erabiltzean egindako akats bakoitzak 0,1 penalizatzen du.</p>		

## OHARRA

Jarraian ikasleek egindako lau idatzizko azterketa daude kalifikaturik. Zuzentzerakoan ikasleei eman zaien txantiloia kontuan hartu da, baina aldaketa txiki batekin. Ikasleek proba egin zutenean, haien txantiloian **“Geltokiz aldatzeko aukera dagoen galdetu eta aldaketa zergatik behar duzun azaldu”** egitekoa ez zegoen; beste bat zegoen honen orde: **“Zergatik aukeratu duzun zerbitzu publikoa”**. Horregatik, 5. zuzentzeko irizpidean, azkeneko egiteko hau hartu dugu kontuan, eta ez lehenengoa.

## 1. Adibidea:

### 1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

Agurak  
10:00  
Elkarrekin nirekin  
3 pertsona

### 2. Zirriborroa:

~~Agurak~~  
Ogi on, nurekin zerbaitzuek nire erabiltzaile  
narekin nirekin diruzuek.  
Elkarrekin nurekin 10:00 km elkarrekin sartuko  
narekin zerbait, 3 pertsona gurekin eta elkarrekin nurekin  
narekin elkarrekin diruzuek ez diruzuek ezta bat gurekin nurekin  
narekin, zerbaitzuek nurekin erabiltzaile dute zerbait  
oso ongi diruzuek

### 3. Behin betiko testua:

MEZU BERRIA
Hartzailea:
Gaia:

Ogi on, Arac nurekin eta zerbaitzuek nurekin erabiltzaile  
narekin nurekin diruzuek.

Elkarrekin nurekin 10:00 km elkarrekin sartuko narekin  
zerbait, 3 pertsona gurekin eta ez diruzuek ezta bat gurekin  
nurekin, elkarrekin nurekin narekin da eta aske elkarrekin diruzuek  
da zerbaitzuek nurekin erabiltzaile dute zerbait oso ongi diruzuek  
narekin, elkarrekin aske narekin gurekin eta aske dute erabiltzaile.

### III. ERANSKINA

1. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANGINTZA	1. Zirriborroa	Zirriborroaren bi zatiak erabili ditu, nolabaiteko garapenarekin.	0,5
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	- Aurkezpena garbia da baina letra kaskarra darabil. Ia ez dago paragrafo banaketarik.	0,5
	3. Ortografia	- Hiru akats ortografiko egin ditu: "serbitsu", "aeroportuan" eta "zerbitsu".	0,4
	4. Zuzentasun gramatikala	- Lotura akatsak egiten ditu eta ez du ongi deklinatzen. "Erreserbatu nahi nuke 10:00 am aeroportuan Sarasate kalea joateko". - Ez dago aberastasun handirik.	0,5
EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA	5. Eskatutako zereginarekin bat dator eta eskakizunak bete ditu.	- Ikasleak eskatutako informazioa ematen du (emailaren helburua, zerbitzua hasteko geroak, ordua, erabiltzaileen kopurua, ekipajea, izena). Baina ez du informazioa gehiegi garatzen.	0,5
	6. Hiztegiaren aberastasuna	- Erabilitako hiztegia nahiko mugatua da eta batzuetan gaizki idatzita dago.	0,5
	7. Egokitasuna	- Hasierako eta amaierako agurrak eskasak dira - Amaieran ez da izena agertzen. - Ez darabil erregistro egokia.	0
	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia	- Informazioa modu egokian garatu du baina ia ez dago paragrafo banaketarik.	0,5
KOHESIOA	9. Lotura, erreferentia mantenduz	- Ez du lokailurik erabili eta erreferentia galtzen da batzuetan.	0
	10.- Puntuazio-markak	- Bi puntu eta koma ez ditu jarri.	0,5
	OSOTARA		<b>3,9/10</b>

### 2. adibidea:



3. Behin betiko testua:

MEZU BERRIA
Hartzailea: mcp@mcp.com
Gaia: Transporte egoera

Kaixs mcp@mcp.com; nite eskaera da. Geroportura  
genteko taxi bat bea xaxoa dut.

Gustatuko lizaidake gerozea Sarasate,  
pasatlekuan Ertas bea xaxoa dut emen egotea  
taxia 11:30 etan boteba ez dit dembora  
emango egaz xaxa axara. Taxia andiesia  
izan bearka da hiru mafea baxamat eta  
desente andiax dira.

Ereserba hau                      ten izeneta dago,  
garia zerbitzu publikoa aukeratu dut oso garestia  
delaka eta oso ongi hiz egiten dute zerbitzu  
Onetaz. Hiza esker eta laster atle.

BIDALI

2. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Zirriborroa	- Zirriborroaren espazioa erabili du testuaren lehenengo bertsioa egiteko.	0,5
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	- Aurkezpena garbia da, marjinak errespetatzen ditu eta paragrafotan banatzen du testua.	1
	3. Ortografia	- Hamahiru ortografia akats egin ditu, bereziki h-ren erabilerarekin lotuak: "bearezkoak", "bearko", "artzeko", etab.	0
	4. Zuzentasun gramatikala	- Akats morfosintaktiko asko egin ditu, bereziki esaldien loturan. Adibidez, nire eskera da aeroportura goateko taxi bat beharrezko dut".	0
EGOKITASUNA ETA KOHERENTZIA	5. Eskatutako zereginarekin bat dator eta eskakizunak bete ditu.	- Agindutako zeregina egin du.	1
	6. Hiztegiaren aberastasuna	- Agindutako hiztegia nahiko ohikoa da baina ez du errepikapenik egin.	0,5
	7. Egokitasuna	- Ez du mezu elektronikoa sinatzen. - Ez du erregistro formala erabili.	0,5
	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia	- Orokorrean, egitura argia dauka testuak, baina jauzi batzuk daude bukaeran.	0,5
KOHESIOA	9. Lotura erreferentea mantenduz	- Ez du lokailurik erabili, baina orokorrean testu osoan mantentzen du erreferentea.	0,5
	10. Puntuazio-markak	- Puntuazioan hiru akats egin ditu: puntu bat, koma bat eta bi puntu.	0,6
	OSOTARA		<b>5,1/10</b>

### 3. adibidea:

#### 1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

Tanien harte → zer hordetan → pertsona 1 →  
Zinaleta → Peio → gaurraio publikoan aurkeztu  
dit osaketa delako.

#### 2. Zirriborroa:

Kaiko.  
Tanien harte nahin dit aurkeztuak.  
Zer hordetan harte nahin dit osaketa delako.  
dit.  
Pertsona 1 bakoitza.  
Zinaleta osaketa dit.  
tanien dit.  
Gaurraio publikoan harte nahin dit osaketa delako.

3. Behin betiko testua:

MEZU BERRIA
Hartzailea: mcp@mcp.es
Gaia: Aireportura taxis.

Kaixo,

Neu hau idartzen dut taxi bat hartu nahi dudalako  
aireportura joateko.

Nic galdere da ea zer hordutan hartu ahal  
dudan taxi.

Nik bekarak neng. pertsona 4. 2 maleta eramango ditud  
eta nire izena — da.

Gaurko publiko hartu nahi dut orokara eta  
oso oner iruditzen zaidalako, gaurerik hurbil  
daukat.

Elamk adis, agur.

3. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Zirriborroa	- Testuaren ideiak idatzi ditu eta lehenengo bertsio bat egin du.	1
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	- Txukun idatzita dago eta paragrafotan banatuta.	1
	3. Ortografia	- Ortografia bi akats egin ditu: "taxis" "horduan".	0,6
	4. Zuzentasun gramatikala	- Zenbatzaileak gaizki erabili ditu: "2 maleta". Ergatibo bat ere bai. Zehar galdera ongi erabili du, ordea.	0,5
EGOKITASUNA eta KOHERENTZIA	5. Eskatutako zereginarekin bat dator eta eskakizunak bete ditu.	- Ez ditu geralekua eta taxia hartzeko ordua zehaztu.	0,5
	6. Hiztegiaren aberastasuna	- Erabilitako hiztegia nahiko mugatua da eta gaizki idatzita dago kasuren batean. "Nahi dut" errepikatzen du.	0,5
	7. Egokitasuna	- Mezu elektronikoaren zati guztiak jarri ditu sinadura izan ezik. - Ez du erregistro formala erabili.	0,5
	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia	- Egitura argia du eta informazioaren progresioa egokia da.	1
KOHESIOA	9. Lotura erreferentea mantenduz	- Ez du lokailurik erabili.	0,5
	10. Puntuazio-markak	- Hasierako agurreko bi puntuak ez ditu jarri.	0,9
	OSOTARA		<b>7/10</b>

## 4. adibidea:

### 1. Ideiak – Hasierako planteamendua:

- Zerbitzua
- Non eta zer ordutan
- Pertsona kopurua, ekipajea eta nire izena
- Zergatik zerbitzu publikoa

### 2. Zirriborroa:

- Taxi aireportura joateko eskaria egiteko idasten dut.
- Saraste pasalekuan egundiko 12:30etan
- Ni eta nire laguna joango gara.
- Bien artean, bi fardel handi eta txiki bat eramango ditugu
- Nire izena \_\_\_\_\_ da.
- Aireportura goazenez, gero kotxea han utzi beharrean, taxi joaten bagara komodoagoa delako aukeratu dugun zerbitzu hau.

### MEZU BERRIA

Hartzailea: mcp@mcp.es.

Gaia: Aireportura taxi eskaria

Taun/indere agurgarria

Orreretara goaz eta Taxi aireportura joateko eskaria egitera  
gatoz  
~~beraz~~ berandu baina lehen; Saraste pasalekuan 12:30tan hartu

nahiko genuke Taxia. 2 pertsona izango gara, nire lagunk Laida eta

ni. ~~ni~~ Laidak fardel handi bat eta txiki bat eramango dugu eta

nik fardel handi bat. Beraz, bien artean bi fardel handi eta txiki

bat. Nire izena \_\_\_\_\_ da.

Aireportura goazenez, gero kotxea han utzi beharrean, taxi joaten bagara,

komodoagoa delako guretat aukeratu dugun zerbitzu publikoa.

Aguz bera bat.

4. adibidea			
Atala	Irizpidea	Adierazleak	
PLANG.	1. Zirriborroa	- Espazioa ongi aprobetxatu du. Testuan garatuko diren ideiak aurreratu ditu eta eskema bat egin du.	1
ZUZENTASUNA	2. Aurkezpena	- Testua garbi idatzita dago, urratu pare bat egin baditu ere. Paragrafotan banatua dago eta marjinak errespetatu ditu.	1
	3. Ortografia	- Ez du akats ortografikorik egin.	1
	4. Zuzentasun gramatikala	- Akats ortografiko batzuk egin ditu mugagabearen erabileran eta esaldien loturan. Gaztelerako kalkoren bat ere erabili du.	0,5
EGOKITASUNA eta KOHERENTZIA	5. Eskatutako zereginarekin bat dator eta eskakizunak bete ditu.	- Agindutako zereginaren puntu guztiak bete ditu.	1
	6. Hiztegiaren aberastasuna	- Hiztegiaren erabilera egokia egin du.	1
	7. Egokitasuna	- Testuak mezu elektroniko baten zati guztiak ditu sinadura izan ezik. - Erregistro formala erabili du.	0,5
	8. Egitura argia, informazioaren progresio egokia	- Informazioaren progresioa modu koherentean antolatzen da.	1
KOHESIOA	9. Lotura erreferentea mantenduz	- Lokailuak erabiltzen ditu era erreferentea mantentzen du testu guztian zehar.	1
	10. Puntuazio-markak	- Puntu bat eta koma bat utzi ditu jarri gabe.	0,7
	OSOTARA		<b>8,7/10</b>